

GUFEn EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA, 2017-2019

II PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN EL IFAS 2017-2019

Bertan agertzen diren ekintzetatik honako hauek egin dira 2020an / De las acciones incluidas en el mismo se han realizado las siguientes en 2020:

G.4.2. GUFEn prestakuntza-ekintzetan genero-ikuspegia barne hartzea: irakaslegoari jakinarazi zaio derrigorrezkoa dela hizkeran eta irudietan erabilera ez sexista egitea, rolak eta estereotipoak ez berregitea eta datuak sexuaren arabera biltzea.

G.4.2. Integración de la perspectiva de género en las acciones de formación: se ha comunicado a todo el profesorado la obligatoriedad de un uso no sexista del lenguaje, una no reproducción de estereotipos y el dar los datos desagregados por sexo.

G.5.1. Langileen sarrerarako eta sustapenerako hautapen-prozesuetan genero-ikuspegia barne hartzea: aurten egin dan osasun-laguntzaileen deialdian generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da. Gaietan berdintasunaren inguruko araudia sartu da, prozesuari lotutako dokumentazioan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista egin da eta epaimahai kalifikatzailean ordezkari kopuru orekatua egon da. Eta oinarrietan klausula bat sartu da gaikuntza berdina dagoenerako.

G.5.1. Integración de la perspectiva de género en los procesos selectivos de acceso y promoción de personal: las convocatorias de auxiliar sanitario/a realizadas este año ha incorporado el correspondiente informe de evaluación previa del impacto en función del género. También se ha incluido normativa de igualdad en el temario, se ha hecho un uso no sexista del lenguaje y las imágenes en toda la documentación y ha habido una representación equilibrada en el tribunal calificador. Además en las bases se ha incluido la cláusula en el caso de existir igualdad de capacitación.

V.2.2.2. Laneko arriskuen prebentzio zerbitzuan genero ikuspegia txertatzea: zerbitzuko langileentzat eta prebentzio-batzordeko kideentzat ikastaro bat egin da.

V.2.2.2. Integración de la perspectiva de género en el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales: se ha realizado un curso para todo el personal del servicio y las personas integrantes del comité de prevención.

COVID-19 pandemiaren ondorioz, martxoaren 8tik aurrera egin beharreko ekintza guztiak bertan behera geratu dira/ Debido a la pandemia por COVID-19, a partir del 8 de marzo se suspenden todas las acciones que se iban a realizar.